



Clarity, organoak garden bihurtzeko teknika

Stanford Unibertsitateko bioingeniari-talde batek Clarity izeneko metodologia garatu du, organoak osorik garden bihurtzeko. Hala, posible egin dute haien barne-egitura eta -elkarrekintzak zehaztasun handiz behatu ahal izatea. *Nature* aldizkarian eman dute asmakuntzaren berri.

Ikertzaileentzat ez da erraza sistemen barruko elkarrekintzen berri izatea: prestakinetan zatitu behar izaten dute aztertu beharreko ehuna edo organoa, eta, gero, emaitzekin berreraiki egiten dute.

Ikertzaileek bazekiten lipido-geruza bikoitzek zailtzen dutela ehunetan argia eta azterketetan erabili ohi diren molekulak sartzea. Hortaz, ehunen egitura inola kaltetu gabe lipidoak erazuteko sistema bat sortzea pentsatu zuten. Ez zen edonolako erronka, mintzen osagai nagusiak baitira lipidoak, hau da,



Sagu baten garuna ezkerrean, eta garun bera eskuinean Clarity teknika aplikatu ondoren.
ARG.: © KWANGHUN CHUNG AND KARL DEISSEROTH, HOWARD HUGHES MEDICAL INSTITUTE/STANFORD UNIVERSITY.

egiturari eta biomolekulei eusten dieten osagaiak.

Bada, lipidoen euskarri-funtzioa ordezkatzeko, hidrokeleko sare bat sortu zuten, ehunen gainerako osagaiak ez zitezen beren jatorrizko lekutik mugitu. Hala, lipidoak detergente baten bidez ezabatu

ondoren, ehunak erabat “muntatuta” zeuden, baina guztiz gardenak eta makromolekulekiko iragazkorak ziren. Azterketan, sagu-garun bat erabili zuten. ●



Ikusi bideoa webgunean.



GazteApp aplikazioa jada zure esku



mobile.gazteberri.info